



## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Alde batetik, gure enpresa sortzeko eta aurrera eramateko dirulaguntzak eta maileguak eskatzea erabaki dugu. Laguntza hauek oso garrantzitsuak eta lagungarriak dira gure enpresaren etorkizunerako. Diruarekin inbertsio berriak egingo ditugu, gure tabernari ahalik eta etekin gehien ateratzeko.

Beste aldetik, bazkide bakoitzak enpresa sortzerakoan kapitala jarri beharko dugu. Bazkide guztiak, hau da lauok, 3.000 €-ko kapitala jarri beharko dugu. Kapital hori dirua, ondasunak edo eskubideak izan litezke eta enpresa sortzerakoan jarri beharko ditugu.

Informazioa bilatu eta gero, hauek izan dira gure bilakaerak, bai diru laguntzak, bai maileguenak.

### ***DIRU LAGUNTZAK***

Diru laguntza hauek bilatu ditugu. Batetik, gazteentzako 75.000€ eskaintzen dituzte bere enpresa bultzatzeko, bestetik, proiektuko lehen etapan dauden enpresa txiki eta ertainentzat, 300.000€ eskaintzen dituzte.

Gainera, Ekintzaile 2023, laguntza ekonomikoak eta aholkularitzak ematen ditu, gure ideia ondo garatzeko, merkatuan finkatu arte. 30.000€-ko diru laguntzak eskaintzen ditu, itzuli beharrik gabe, gure proiektuan inbertitu dezagun.

*Ekintzaileak lagunduko digu:*

- Gure Enpresa Plana zehaztea BIC baten laguntzarekin.
- Gure enpresa-prestakuntza hobetzea edo aholkulari bat kontratatzea.
- Maketak eta enpresaren eredu desberdinak egitea.
- Lokalak aurkitzea eta egokitzea.
- Makinaria, ekipamentua, ibilgailuak, instalazio teknikoak eta altzariak erosten.
- Lizentziak eta jabetza industrialak edo intelektuala.

### ***MAILEGUAK***

Gure enpresa finantzatzeko hainbat mailegu mota bilatu ditugu.

#### ***1. ESPAINIAKO GAZTE EKINTZAILEENTZAKO LAGUNTZAK***

- Berrikuntza Enpresa Nazionalak (Enisa) 40 urtetik beherako enpresaburuentzako orientazioa du.
- 25.000 € eta 75.000 € arteko partaidetza-maileguak dira, enpresa finantzatzeko.
- HELBURUA: Gazteek sortutako enpresa txiki eta ertainei zuzenduta, enpresa-proiektuak hasierako fasean behar dituen inbertsioei ekiteko.